

GIZARTEA

GAZTEAK BERTANBEHERA 1985 GAZTEEN URTEA DA

Gazteak diranean:

Bizitza, milurterik-milurtera aldatuz datorrela badakigu. Gure asabak, tximinoen lehengusu zirenetik gaur arte, burua oso aldatu zaigula ezagun dugu. Baina gure seme-alabek zapak modu bereziz ebakitea ezin dogu onartu. Puñky, funky, arapa-hoen nahiz beltzen orrazkera karakolduak sarritan ikusi arren, etorriko dira normalitatera pentsatsen dugu. Normalitatea, ordea, ez dago gure orrazkeran. Beraien moda pasatuko da. Bai berri bat ager dadin, baina ez gurea hartzeko.

Berritu ez garenak geu gara. Gazteengandik aldenduta geu aurkitzen gara. Ez dakigu gaurko hamabostekoak zer musika entzuten duen; egunean zehar zerk arduratzen duen edo asti-orduak betetzeko zelan konpontzen den.

Nola ukatu geuk ere badugula gazteriak ez duenik. Asko da, gurea, neska-mutil bardingoek ezezagun dutena. Eta ezer aztertuta beharko badugu artikuluska honetan, horixe da. Zeren guk baititugu gure giro, egonleku, zereginetan parte hartzera ekartzen. Ez diegu integrazioa erreztzen.

68ko Herri Gaztedin, zuzen, oker, bero edo epel arituko ginen, baina kontua, ibili egin ginela da. Naberan, Kalzada, etab..., gu entrenatzen saiatu ziren. Athleticera igotzen dan Sali-

naş, hainbat lehenago Iribarrekin eta trebatu ondoren doa. Bertsolaria ez da Burgosen sortzen. Gu, orduan, «Cara al Sol» ez den himnorik badela ohartu ginen.

Gazteekin garenean

San Pedrok ere bere ondoan, ahalik beranduan hartu gura izan zuen Pardoko Miru Zaharra nonbaiteratu zenean, heziera bideak moldatu egin ziren. Demokraziak erakunde ofizialen birtartez ekarri ahalko zuen gazteriarentzako erantzuna. Demokrazia jaio berria kritikatzeari gogor samar gertatzen zen. Demokrazia, demokratik edo ageri ziren. Frankismoan zapalduta zegoen gazteria, orain bertanbehera laga zen. Droga, langabezia, pasotismoa gazteenganatu eta gero jabetu gara demokrazia honen ustelaz. Estatua-estatu, gotzaiek, herri elkarteak dihardute drogaren aurka. Langabezia, sistemak berak dakarkigu. Gazteriaren arazo ugari ez du demokraziak bideratu.

Derioko Institutura datozen neska-mutillak, beste ikastetxeetakoan antzerakoak dira. Zuhur datoz, zentzu guztiak erne. Erdaldunak espainol datoz, euskaldunak erdaldun. 38ko ikasgelan, 2k dakite Urumea nondiko ibaia dan. Euskara dakien inor ez zaio aldamenekoari euskaraz zuzentzen.

Hauek nahiz haiek, nagusien gizonte arrotza bizi dute. Eta gu hortxe bertan gabiltza lanean.

1981/82: Euskararen berri onak zabaltzen. «Anti»ak kendu eta «Pro»ak lantzen.

1982/83: Giroa sortu ondoren, hizkuntzaren jorratzeari sistematikoa.

1983/84: Ikasturteaz gainera, udako ikastaroa, baserria, hitzaldiak, aste kulturala. Udateko ikastaldian bertan euskaraz elkarren artean egiten hasi ziren, normal. 15 urtetako neska-mutillak, Txorierrin, lehen aldiz mintzatzen ziren hogeiko taldean euskaraz, nagusirik tartean ez zegoela.

1984/85: Ikasturteaz gainera, udako barru ikastaroa, E.G.A.

ikastaldia Gueskoletan. Gutxi dira, berriz, institutoan ere euskaraz dabiltenak, baina badira. Ez da izan ere institutoan udako ikastaroko giro aproposik. Urteon, «Txorierrin Euskaraz» taldea sortze lanetan gabilta. 28 partaide gara B.B.B.ko maila guztietako ordezkariak eta, igaz instituto aroa amaitutakoak dira taldekide. Estatutoak, erdi idatzian dauzkagu. Behin-behineko egoitza badugun arren, geurea nahi genuke.

Hausnarketa laburra da nahiko, uste genuena lortu den ala ez jakiteko. Nire aburuz heldu gara projektaturiko helburuetara edo antzekoetara; baina ez dira denak, ikasle guztiak ailegatu. Helmugara iristea posible dela frogatu ahal izan dugu. Halere, taldeko guztiek ez dute erantzun, akademikoki baino. Horrextan datza hutsa, kopuruan. Eta, dena dela, lau urte luze eman ditugu neska-mutil euskaldunak, hartu-emanetarako euskara erabil dezaten.

Bitartean, taldeko haserreak, eritzi ezberdinak, mediorik eza, adinaren arabeko interferentziak ez dira falta izan. Tamalez, erakundeen esku utzirik berez-berez erdietsiko ez litzatekeen zerbait atera dugu aurrera. Demokraziako erakunderik gabe ez zela eginkor gertatuko? Seguru asko. Baina erakundeekin bakarrik ere ez. Erakundeok badaude baina ez dira.

Gazteentzako denean

Lau urteotan, euskaldun gazteok ulertzeko zer egin da? Beti egin beharko genukeena, nik uste: laguntzaile izan, oso autonomia haundian mugi daitezen utzi. Dirua, heuratariko biren firmapean. Ekintzak, taldean erabakiak. Badakigu, ez direla gure eritzien bide berberetik joango. Garrantzizkoena, eskuartean daukatena heuren dela senti dezaten da. Guk, nagusiok, behar-beharrezko ditugula; herriko zereginetan partea dutela jakitea, igartzea, da nahitaezkoa.

Euskara bera, droga, pasotismoa, ez dira berbaldi ideologiko-teorikoan bidez konponduko. Goizeko zazpi t'erdietan ez

gara abertzaleak garelako jaikitzen, iratzargailuak jo duelako baino.

Gazteak, nagusien mundura, konbidatu egin behar ditugu eta, medioak eskaini, heldutasunera gogoko dituzten errepideetatik iritsi daitezen.

Zelan ez estimatu seme-alabak? Nola ukatu gazteak direla gure etorkizuna? Nork, baina, opatu lokale, egoitza soil bat, bazartokitizat erabiltzeko? Zenbatek eskaini denbora apurra neska-mutilen mesedetan?

Juan Luis Goikoetxea

BEREZIARTUA ARGAZKIAK

*Argazkiak egiten dira eskontzetan Euskal Erri guztian.
Tresnak daukaguz zeuk argazkiak egin dagiguzan.*

Gure etxea zabalik daukazu era onetan:

astegunetan: 9'tik 1'ra ta 4'tik 8'ra.

jai-egunetan: 9,30'tik 12'ra.

Arana'tar Sabin kalea
Urrutizkiña 673 0424

ZORNOTZA